

## Euskara batu sinpleari jarriak

### I

Ez badakizu bereizten letra xehea eta larria, ez badakizu zerbaiten faltan uzten duzun elbarria, ez badakizu zetaz apaindu behar zenukeen txerria... hona zuretzat euskara batu sinplearen aldarria.



INIGO AZKONA

### IV

Nola euskaldun berri gustien traba ergatiboa den, gu uste dugu ori euskaratik kendu bear dela lenbailen: “Ni i maite aut” esaten badut se “k” bear da ba emen? Nola demontre es dut jakingo or sein sein maitatsen duen!

### II

Euskaldun askok txistukaririk bereizten ez duen gisan, gustiak ese egin ditsagun, es atserakoia isan: “atso etorri ta etsi joan” “apaisa prest dago mesan” Biskaian elkar ulertsen dute ta sertan es hala esan?

### V

Iparraldean erri “egi” da eta ala isan bedi; Biskaian jota “iota” diote eta es al da silegi? A itsatsia kentsea ere es da isango geiegi, len ere maio entsun baitugu “makina bat tontakeri”.

### III

Hegoaldean bada hatsea esabatseko ustea, es aoskatus sentsuskoa da es jartsea obestea, artara erres ulertuko da esaldi onen fustea: “sein gogorra den astelen goises astea berris astea”.

### VI

Kontraksioak aplikatuta amaitu gurot jolasa: naisuna motso esan al basu, es iardun denborapasa! Beingos kenduta gramatikaren neugi gabeko desfasa ea oin nogbait esaten dian euskara estela errasa!